

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

342/2026 Foru Agindua, uztailaren 6koa. Aldatzea 233/2026 Foru Agindua, maiatzaren 4koa, zeinaren bidez onesten baitira Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionario izateko 2024ko eta 2025eko enplegu publikoaren eskaintzei dagokienez, hautaketa prozesuaren deialdia eta oinarri espezifikoak (plaza: Zerga ikuskatzaile laguntzailea; eskala: Administrazio Berezia; azpieskala: Zerbitzu bereziak; klasea: egiteko bereziak; sailkapen azpitaldea: A1)

Maiatzaren 4ko 233/2026 Foru Aginduaren bidez, onetsi ziren Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionario izateko 2024ko eta 2025eko enplegu publikoaren eskaintzei dagokienez, hautaketa prozesuaren deialdia eta oinarri espezifikoak (plaza: Zerga ikuskatzaile laguntzailea; eskala: Administrazio Berezia; azpieskala: Zerbitzu Bereziak; klasea: Egiteko Bereziak; sailkapen azpitaldea: A1).

Ondoren, maiatzaren 19ko 287/2026 Erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren 2026rako lehen enplegu publikoaren eskaintza onetsi zen. Lan eskaintza horretan, besteak beste, Zerga ikuskatzaile laguntzaileen 5 plaza sartu ziren.

Hautaketa prozesuaren eraginkortasuna, prozedura ekonomia eta arrazionalizazioa direla eta, maiatzaren 4ko 233/2026 Foru Agindua aldatu behar da, deialdi horretan 2026ko lehen enplegu publikoaren eskaintzan onartutako plaza horiek metatzeko (plaza: zerga ikuskatzaile laguntzailea; eskala: administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; klasea: egiteko bereziak; sailkapen azpitaldea: A1).

Era berean, akats bat antzeman da maiatzaren 4ko 233/2026 Foru Aginduaren I. eranskineko lehen apartatuan. Apartatu horrek azaltzen duenez, "Deialdi hau arautuko dute oinarri hauetan xedatutakoak eta Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionario izateko 2024ko eta 2025eko enplegu publikoaren eskaintzen deialdien oinarri orokorretan xedatutakoak".

Hala ere, ez dago 2024ko eta 2025eko enplegu publikoaren eskaintzei batera dagokien oinarri orokorrei buruzko xedapenik. Egungo eta aplikatu beharreko xedapena Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionario izateko 2024ko enplegu publikoaren eskaintzetatik eratorritako deialdien oinarri orokorrei buruzkoa da. Ondorioz, I. eranskineko lehen apartatuan jasotako erreferentzia zuzendu behar da, 2024ko eta 2025eko enplegu publikoaren eskaintzen aipamena 2024ko enplegu publikoaren eskaintzei dagozkien oinarri orokorren erreferentzia zuzenarekin ordeztuko.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren, eta uztailaren 29ko 29/2025 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko egitura organiko eta funtzionala onetsi zen. Bi dekretu horietan ezarritakoarekin bat etorritz, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea 233/2026 Foru Agindua, maiatzaren 4koa, zeinaren bidez onesten baitira Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionario izateko 2024ko eta 2025eko enplegu publikoaren eskaintzei dagokienez, hautaketa prozesuaren deialdia eta oinarri espezifikoak (plaza: Zerga ikuskatzaile laguntzailea; eskala: administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; klasea: egiteko bereziak; sailkapen azpitaldea: A1).

Hau dioen lekuan:

“Onartzea Arabako Foru Aldundiaren 2024ko eta 2025eko enplegu eskaintza publikoetako lanpostu honetan karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuaren deialdia eta oinarri bereziak: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, zeregin berezien klasea, zerga ikuskatzaile laguntzailea, A1 sailkapen azpitaldea”.

Hau esan behar du:

Aldatzea 233/2026 Foru Agindua, maiatzaren 4koa, zeinaren bidez onesten baitira Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionario izateko 2024ko eta 2025eko enplegu publikoaren eskaintzei dagokienez, hautaketa prozesuaren deialdia eta oinarri espezifikoak (plaza: Zerga ikuskatzaile laguntzailea; eskala: administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; klasea: egiteko bereziak; sailkapen azpitaldea: A1).

Bigarrena. Aldatzea 233/2026 Foru Aginduaren lehenengo xedapena, maiatzaren 4koa, zeinaren bidez onesten baitira Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionario izateko 2024ko eta 2025eko enplegu publikoaren eskaintzei dagokienez, hautaketa prozesuaren deialdia eta oinarri espezifikoak (plaza: Zerga ikuskatzaile laguntzailea; eskala: Administrazio Berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; klasea: egiteko bereziak; sailkapen azpitaldea: A1).

Hau dioen lekuan:

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren 2024ko eta 2025eko enplegu eskaintza publikoetako lanpostu honetan karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuaren deialdia egitea: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, zeregin berezien klasea, zerga ikuskatzaile laguntzailea, A1 sailkapen azpitaldea.

Hau esan behar du:

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren 2024ko, 2025eko eta 2026ko enplegu publikoaren eskaintzetako lanpostu honetan karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuaren deialdia egitea: Zerga ikuskatzaile laguntzaile lanpostua; eskala: administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; klasea: egiteko bereziak; sailkapen azpitaldea: A1.

Hirugarrena. Aldatzea maiatzaren 4ko 233/2026 Foru Aginduaren 1, 2 eta 4 apartatuak, zeinaren bidez onesten baitira Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionario izateko 2024ko eta 2025eko enplegu publikoaren eskaintzei dagokienez, hautaketa prozesuaren oinarri espezifikoak (plaza: Zerga ikuskatzaile laguntzailea; eskala: administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; klasea: egiteko bereziak; sailkapen azpitaldea: A1) eta foru agindu honekin batera doan I. eranskin aldatua argitaratzea.

Laugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 6a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR



I. ERANSKINA

LANPOSTU HONETAN KARRERAKO FUNTZIONARIO GISA SARTZEKO HAUTAKETA PROZESUAREN OINARRI BEREZIAK: ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALA, ZEREGIN BEREZIEN KLASEA, ZERGA IKUSKATZAILTZA (ZERGA IKUSKATZAILE LAGUNTZAILEA) (kodea: 11224)

1. DEIALDIAREN ARAUAK.

Deialdi hau arautuko dute oinarri hauetan xedatukoak eta Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionario izateko 2024ko enplegu publikoaren eskaintzaren deialdiaren oinarri orokorretan xedatutakoak.

2.- DEIALDIKO PLAZAK.

Zortzi plaza hornituko dira, oposizio-lehiaketa sistemaren bidez (zerbitzua: Zergak Ikuskatzeko Zerbitzua; plaza: Zerga ikuskatzaile laguntzailea; eskala: Administrazio Berezia; azpieskala: Zerbitzu Bereziak; klasea: Egiteko Bereziak; taldea: A; sailkapen azpitaldea: A1. Plazak oposizio lehiaketa bidez hornituko dira, honela banatuta:

A.- Txanda ireki orokorra:

5 plaza, honela banatuta:

A.1. Txanda ireki orokorra:

- 2 plaza derrigortasun datadun 3. hizkuntza eskakizuna esleituta duten lanpostuenak.
- 2 plaza hizkuntza eskakizuna duten eta derrigortasun datarik gabeko lanpostuei dagozkie.

A.2. **Desgaituentzat gordetako kupoa:** plaza 1, derrigortasun datarik gabeko hizkuntza eskakizunarekin.

B.- Barne sustapeneko txanda:

3 plaza, honela banatuta:

B.1. Barne sustapeneko txanda orokorra. 3 plaza, honela banatuta:

- 2 plaza hizkuntza eskakizuna duten eta derrigortasun datarik gabeko lanpostuei dagozkie.
- Plaza 1, derrigortasun datadun 3. hizkuntza eskakizuna esleituta duen lanpostu bati dagokiona.

3.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, doktore, lizentziadun, gradu, ingeniari edo arkitekto titulua edo baliokidea eduki beharko da, edo horiek jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki. Titulua atzerrian lortu duten izangaiek tituluaren homologazioaren egiaztagiria eduki beharko dute.



4.- PLAZAK ESLEITZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK.

Nahitaezko hizkuntza eskakizuna ezarrita daukan lanpostua esleitzeko, hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da.

Horrez gain, zortzi plazetan B gidabaimena behar da.

5. IZENA EMATEKO TASAK.

Hautaketa prozesuan parte hartu nahi duten pertsonak 31,82 €-ko tasak ordaindu beharko dituzte izena emateko, eskaerak aurkezteko epearen barruan.

6.- HAUTAKETA PROZESUA.

6.1. OPOSIZIO FASEA.

Aldi honetan, bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertze indarrekoak.

Oposizio aldia gehienez ere 83 puntu lortu ahalko dira. Oposizio aldia gainditzeko gutxienez 41,5 puntu lortu beharko dira bi proben puntuazioak batuta, betiere horietako bakoitzerako eskatzen diren ezagutzetan gutxienerako puntuazioa lortuta.

6.1.1 Proba teorikoa:

6.1.1.1 Txanda irekia.

Deialdiko gai zerrendako edukiei buruzko galdera sorta bati erantzun beharko zaio. Galdera bakoitzean lau erantzun izango dira aukeran, eta bakarra izango da zuzena.

Ariketaren zuzeneko puntuazioa honako formula hau aplikatzearen emaitza izango da:

Zuzeneko puntuazioa = erantzun zuzenen kopurua ken erantzun okerrearen herena ($P = A - E/3$).

Erantzun zuriak ez dira zigortuko eta, beraz, ez zaizkio asmatutakoen kopuruari deskontatuko.

Probaren azken emaitza gehienez 40 puntukoa izango da, horixe izanik zuzenean lortu daitekeen gehienekoa. Oposizio fasea gainditzeko, ezagutzaren arloan gutxienez 14 puntu lortu beharko dira.

6.1.1.2 Barne sustapeneko txanda

Deialdiko gai zehatzei buruzko galdetegi erantzun beharko da. Galdera bakoitzeko 4 erantzun eskainiko dira eta bakarra izango da zuzena.

Ariketaren zuzeneko puntuazioa honako formula hau aplikatzearen emaitza izango da:

Zuzeneko puntuazioa = erantzun zuzenen kopurua ken erantzun okerrearen herena ($P = A - E/3$).

Erantzun zuriak ez dira zigortuko eta, beraz, ez zaizkio asmatutakoen kopuruari deskontatuko.



Probaren azken emaitza gehienez 40 puntukoa izango da, horixe izanik zuzenean lortu daitekeen gehienekoa. Oposizio fasea gainditzeko, ezagutzaren arloan gutxienez 14 puntu lortu beharko dira.

6.1.2 Proba teoriko-praktikoa:

Epaimahaiak ezarritako gehieneko tartean, ariketa praktiko edo teoriko-praktiko bat edo gehiago egin beharko dira, erantsitako gai zerrendaren gai espezifikoekin lotuak, eta baliteke hautagaiek ariketaren zati bat edo batzuk irakurri behar izatea.

Ariketa honetan epaimahaiak ariketaren izaera eta edukia kontuan harturik erabakitzen dituen kodeak eta antzekoak edo bestelako material teknikoak bakarrik erabili ahal izango dituzte izangaiek.

Ariketa hau kalifikatzeko, kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, sintesirako eta analisirako gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna. exposición de estas.

Probaren azken emaitza gehienez 43 puntukoa izango da, eta hori izango da lortu daitekeen zuzeneko gehieneko puntuazioa. Oposizio aldia gainditzeko, gutxienez 15,05 puntu lortu beharko dira ezagutzaren arloan.

6.2 EUSKARAREN EZAGUTZA.

6.2.1 Merezimendu gisa baloratzea.

Derrigortasun datadun hizkuntza eskakizunik esleitura ez duten lanpostuen plazetara sartzeko, euskara jakitea merezimendu moduan baloratuko da, oinarri hauetan ezarritako baremoaren arabera.

Deialdi honen oinarri orokorrean 9.3 apartatuan jasotakoarekin bat etorriz, euskararen ezagutza behar bezala alegatu eta egiaztatu ez bada, ez da baloratuko.

6.2.2 Euskararen ezagutza mailaren baremoa.

Euskararen ezagutza baloratzean kontuan edukiko da deitutako plazetako hizkuntza gaitasun nagusia, honako baremo honen arabera:

	Hizkuntza eskakizun nagusia
	3. HE (C1)
Egiaztatutako hizkuntza eskakizuna	
1. HE (B1)	5 puntu
2. HE (B2)	6,25 puntu
3. HE (C1)	11 puntu

Egiaztatutako hizkuntza eskakizunik altuena baino ez da baloratuko



6.3. LEHIAKETA FASEA.

Lehiaketa fasean hautagaiek alegatutako eta egiaztatutako esperientzia baloratuko da, merezimendu baremo honen arabera:

6.3.1 Txanda irekia:

Deialdi honen oinarri orokorren 9.2.2 atalean aipatzen diren erakunde eta organismoetan izandako esperientzia profesionalagatik gehienez 17 puntu lortu ahalko dira, hain zuzen ere 0,0058 puntu A taldeko A1 (A) azpitaldeko eskaletan edo azpieskaletan zerga ikuskatzailatzan, zerga kudeaketan edo administrazioarekiko diru erreklamazioak ebazten denetarikoa harreman juridikoekin lanean emandako egun bakoitzeko, salbuespen hauekin: zerbitzu zibilen edo merkataritzako zerbitzuen errentamendu kontratuen, beken eta prestakuntza praktiken bidez emandako zerbitzuak.

Ondorio horietarako, baliokidetzat hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzat zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, hargatik eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Egindako lanaldia gorabehera baloratuko dira zerbitzu horiek.

6.3.2 Barne sustapeneko txanda:

Deialdi honen oinarri orokorren 9.2.2 atalean aipatzen diren erakunde eta organismoetan izandako esperientzia profesionalagatik gehienez 17 puntu lortu ahalko dira, hain zuzen ere 0,0058 puntu A2 azpitaldeko azpieskaletan denetarikoa harreman juridikoekin lanean emandako egun bakoitzeko, eta 0,0116 puntu A1 azpitaldeko azpieskaletan denetarikoa harreman juridikoekin lanean emandako egun bakoitzeko, salbuespen hauekin: zerbitzu zibilen edo merkataritzako zerbitzuen errentamendu kontratuen, beken eta prestakuntza praktiken bidez emandako zerbitzuak.

Ondorio horietarako, baliokidetzat hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzat zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, hargatik eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Egindako lanaldia gorabehera baloratuko dira zerbitzu horiek.

7. LEHENTASUN KLAUSULA APLIKATZEA.

Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuak, 21.1.a) artikuluan ezartzen duena aplikatzeko, ez da aplikatuko artikuluko horretan berdinketa hausteko ezarritako klausula, deitutako plazen eskalan, azpieskalan, klasean eta espezialitatean ez baitago emakume gutxiegi.